

Nafarkaria

Egunkaria

Ostirala, 1996ko abuztuaren 30a

*



Euskara zaharrean arakatzuz

■ Euskara Nafarroako gune batzuetan galtzen doan heinean hiztun izandakoek utzitako izkribu idatziek hartzen dute garrantzia. Esaterako, aezkerak hartu duen bidea da horren eredu, galtzen baitoa. Hala ere, oraindik non arakatu badagoela erakutsi du Juantxo Urdironek *Abaurrepe-*

ko Bicario Jauniblearen bertsoaren azterketarekin. Abaurrepeko biztanle batek emana, aezkeraz izkribu gutxi dagoela aintzat hartuz, gehiago sakontzeko aukera izan du ikertzaileak. Bestalde, Iruñeko euskararen inguruan dagoen testu bakarrak ere ekarri du datu berririk. ■

Buzoi hutsak

Mapa mutuak

PELLO LIZARRALDE



Etxetik urrun zaude, irla batean, eman dezagun. Gaua da, arrain errearen usaina dator itsasertzeko jatetxeetatik, eta haize epel hezeak betetzen dizkizu birrikak. Zure saketan bada oraindik arratsaldeko paseoa bildu duzun menda-fin hondarrak. Agur egiten dizu arrantzan ari den mutiko batek, handik gutxira irribarre kaitik datorren neska beltzaranak, «gabon» esan dizute petrilean zeuden adineko senar-emazteek. Laute eta gitarraz lagundutako ahaireak kanporatzen dira etxe zuri batetik. Erretiratzen hasi diren kaiotei buruzko solasaldi laburra inprobisatu duzu bere etxeko atarian zegoen emakume batekin. Nekea sentitzen duzu ostaturaino daraman malda igotzean, baina hara iritsita ez zara oheratu, rododendroen azpiko solan jezarrri zara, bugan-billetatik hurbil, mendiari begira, saguzaharren itzal izutuak segituz begiradarrekin. Ia aste pare bat daramazu kanpoan eta bakearen antzeko zerbait na-

gusitzen ari zaizula nabari duzu. Eta orduan maite duzun norbaitekin akordatzen zara eta gutun bat idatzi behar diozula esaten diozu zure buruari, eta hala egiten duzu logelan sartu bezain laster. Kilkerrik ere bada airean.

Itzulerak galderak aldatzea ekartzen du, kortesia eta jakinmina nahasten direlarik. Erantzunek, askotan, zipiztinen itxura izaten dute.

Irlan idatzitako gutunaz ez zara gogoratu harik eta etxeko buzoia irekitzen hasi zaren arte. Egunezik egunera apur bat urduriago, zure antsia gau hartan paperean hatz markak ongi grabatuta utzi dituenarena da.

Telefonoz heldu da erantzuna. Irudipen orokorrak eskatu dizkizu, eta eman egin dizkiozu. Gutuna? Zoragarria, ze polita! Hori izan da hitza: polita.

Eskegi ondoren espejismo bat izan duzu, eta espejismoak elkarrengandik hurbilegi gaudela erakusten dizu. Zerbait asmatzaileren izenak madarikatu

dituzu sarri. Guttemberg versus Graham Bell. Bi galaxia.

Buzoia egunero ireki behar, ordea. Izanen ahal da zu bezala gau bateko bakeak liluratuta papera hartzeko beharra sentituko duena, xuxurlatik oihura dihoan mezua ulertuko duena. Izan ere, hori zen, besteak beste, adierazi nahi zeniona: Zatoz ene buzoira, usol! Salba nazazu! Libra nazazu paperezko atzaparretatik, Eroskitik, Telepizzatik, aurrezki kutxa guztietatik; eta idatz ezazu nire izena kartazalean, eta ez edonola. Ahal baduzu egizu astiro, kilkerrek kutsatzen duten soseguaren jabe zelarik, ohiturarik ez duenari ardo pixka bat edateak ematen dion begietako ñir-ñir hori duzularik...

Sobera, antza. Edozein huskeriarekin konforme egoten ikasi dugu. Postala ere ez da gutxi: eguraldi ona, janaria halamoduzkoa, jendea jatorra, musu bat. Kode postalik gabe iristen dira oraindik. X

* **GURE AUKERAK**

KONTZERTUAK

Orkoiak: Bossanegra taldeak jazz musika joko du gaur, hilak 30, 21:00etan, herriko plazan.

ANTZERKIA

Arronitz: Popi eta Zaratrako pailazok Pailazokertak ikuskaria antzeztuko dute gaur, hilak 30, herriko plazan.

Irurtzun: Trapu Zaharrak kale antzerkia egingen du gaur, hilak 30, 19:30etatik aurrera, Foruen plazan.

Ibargoiti-Getze: Kilkarrak taldeak Jonjoli antzezlana taularatu du irailaren batean, herriko plazan.

Zugarramurdi: Ikili Mikili Klik taldeak egunero Sorginak izeneko ikuskaria antzezten du herriko kobazuloetan. Lan egunetan emanaldi bakarra izaten da 18:00etan. Larunbat eta igandeetan horretaz gain beste emanaldi bat izaten da 13:00etan.

ERAKUSKETAK

Iruñea: Gotorlekuko Labea aretoan Formak izeneko erakusketa ikusgai izanen da irailaren 29ra arte. Horretan, gaur egungo eskulturaren erakusgarri diren hainbat lan dira ikusgai.

Lizarra: Agustina Otero eta Leopoldo Ferranen muntaia azaroaren 17ra arte izanen da ikusgai Gustavo de Maeztu museoan.

Elizondo: Ana Marinen olioak ikusgai dira Bergarenea etxean Donejakue kalean. Goizetan 11:30etatik 13:00etara, eta arratsaldeetan 17:00etatik 21:00etara izaten da irekita erakusketa.

IKASTAROAK

Iruñea: Web orriak nola egiten diren ikasteko ikastaroa antolatu du Nafarroako Internet Taldeak. Ikastaroak astelehenero goizez egingen dira taldearen egoitzan. Bost astelehenetan zehar ordubeteko ikastaroa jasotzearen truke partehartzaileek 12.000 pezeta ordaindu beharko dituzte.

Iruñea: AEK-k glotodidaktika ikastaroa antolatu du. Ikastaroa irailaren 2an hasi eta 20an burutuko da. Izena emateko dei 220213 telefonora.

Iruñea: Artsaia Music Clubek gitarra elektriko ikastaroa antolatu du. Klaseak irailaren lehen-dabiziko egunetan hasiko dira. Informazio gehiago jasotzeko dei 303357 telefonora.

LEHIAKETAK

Iruñea: Alde Zaharreko Auzo Elkartek Aldapako San Fermin jaiak iragarriko dituen kartela aukeratzeko lehiaketa deitu du. Kartelak Din A-3 tamainakoa izan beharko du, eta egileak irailaren 2an baino lehen aurkeztu beharko ditu bere lanak —kartel bat baino gehiago aurkez daiteke— Auzo Elkartearen egoitzan (Aldapa, 5). Irabazleak 30.000 pezeta eskuratuko ditu.

nafar kronika

Patxi Larrion

Isiltasuna kudeatzen

Berririk ez dagoenean edozer da puntako albiste. Nafar soziolistoek batzarrak bihar egiteko asmoa duen bilera konparazio baterako. Larunbateko trami-te hutsa baita, Nafarroaren aurrera-kuntza bermatu nahi zuen trenaren azken geltokia, aholkulariz inguraturiko lehen-dakariaren agintaldia hastera doa.

Tuterako lehendakari ohiak alderdiari egingako mesedea aitortu ondoren, gestora izan da PSNren jokamolde politikoa bideratu duena. Europarlamentario ohiak protagonismoa bereganatu du, frankismoaren hondarretan urteetan apezten gose grebetan kilorik galtzen ez zuen pertsona bera. Protagonismoa bereganatzea baino ustez arerioa denari agintea ematea azken hilabeteotako bere lanaren lema. Tematia izan da eginkizun horretan.

Orriotan anitzetan aipatu izan dugunez, Na-

farroako Komunitatearen bideragarritasun politikoa izan da PSOEk eta eskuin espainiarrak gure lurraldean duten sukurtsalaren kezka nagusia. Afera honetan, 1982. urtetik aitzina, batera jokatu dute.

Azken bi hilabeteotako PSNko gestorak argitzea baino iluntzea izan du helburu. Sozialistek aski ongi baitakite arerioak zer daukan, eta, larriago dena, europarlamentarioaren noizten-kako tribuna izan da informazio hori zabaldu duena.

Ohi den bezala Nafarroako gizartea dugu galtzaile, informazioa tantaka eta komeni zaigun moldean emanen zaigu. Bi alderdien arteko elkarriketan negoziatu eta adostu diren gaiak ugariak izan dira. Ezkutatzeko edota isiltzeko baitago. Esaterako, negoziazio hauetan, zertan lagundu ote dute Sadar errekararen hirialdeko ertzean direnek?



asteko pertsonaiak



Fermin Tajadura
Lagun Aro San Antonioko burua

■ Iaz helburu bakarra izan zuen Lagun Aro San Antonio eskubaloit talde iruindarrak Asobal ligan, mailari eustea hain zuzen ere. Asobal munduko ligarik indartsuena da, eta maila horri eustea ez da, inondik inora, ahuntzaren gauerdiko ezutula. Antoniarrek iaz euren helburua gauzatu zuten, eta aurten hori baino gehiago lortu nahi dute. Horretarako, aurrekontua marduldu egin dute —44 milioi pezetakoa izatetik 53 milioikoa izatera pasatu da—, eta sona handiko fitxaketak egin dituzte —Villaldea, Mayoral, Peric...—. Joan den asteartean plantila berria aurkeztu zuten, eta ekitaldi horretan Fermin Tajadura taldeko buruak hitz majikoa aipatu zuen: Europa. «Zoragarria litzateke Europara heltzea». Bai horixe.



'Solidarioak'
Itoitzeko Elkartasuna taldeko kideak

■ Joan den larunbatean argazkian ageri den gaztea eta beste neska bat Iruñeko Sarasate paseabideko estatuara igo ziren. Bi *solidario*-ok Itoitzen aste honetan urtegiaren aurka egingen ari den kanpaldian polizia kopurua itogarria dela salatu nahi zuten. Astelehenean beste *solidario* batek —poliziaren setioa gaundituz— monumentura igotzea lortu zuen. Larunbatetik goian zeuden biak eguerdian euren kabuz jaitsi zirenean atxilotu zituen polizeiek. Ilunabarrean aske utzi behar izan zituzten. Hiru *solidario*-ok eta beste lagun asko Itoitzen izanen dira bihar, arratsaldeko seietan, Itoizko Koordinakundeak eta hainbat talde ekologistak deituriko giza katean.

ahaztu gabe!



KALEJIRA ETA KONTZERTUA

Itoitz: Itoizko Koordinakundeak eta hainbat talde ekologistak antolaturiko kanpaldia amaiera emateko, bihar, hilak 30, kalejira eta Nahi ta Nahiez taldearen kontzertua izanen dira Itoitz herrian. Kalejira arratsaldeko seietan izanen da; Nahi ta Nahiezkoen kontzertua, berriz, gaueko hamabi eta erdietan. Gaur bertan, bestalde, ordu eta toki berean Koiuntura folk taldearen kontzertua izanen da. Ekitaldi horiek guztietan giro ona ziurtaturik dago; izan ere, koordinadoraren arabera, partehartzearen aldetik aurtengo Itoizko Urtegiaren aurkako kanpaldia inoiz egin den arrakastatsuen izaten ari da. Asteazkenean ez da ehunetik jaitsi kanpindarrik gabeko kanpinarien kopurua, eta joan den asteburuan ehundaka lagun izan ziren Itoitzen, Guardia Zibilak, Foruzingoak eta zinpeko guardiek jarritako oztopoak ugariak izan badira ere.

adi!

Euskalerrria Irratia FM 91,4

Egunero astelehenetik ostiralera, Zokobetailu goizeko 10.00etatik 11.00etara.

Xorroxin Irratia FM 107,5

Egunero 20.00etatik 22.00etara Karakola segi hola gazteendako saioa.

Aralar Irratia FM 106,2

Asteazkenean zehar 13.30etatik 14.00etara, bertako bizilagun eta pertsonaia ospetsuei elkarriketarako.

Karrape Irratia FM 107,8

Asteazkenean zehar, 12.20etatik 12.35etara Gauza guztien gaitetik, edertasuna eta osasuna, sukaldaritza, ohiturak.

Tutera

Urritik aitzina turismoa arautu egingo da Bardeetan, ingurugiroa ez kaltetzeko

Egunotan informazio zedarriak paratzen ari dira nondik ibili behar den zehazteko

Heldu den urritik aitzina Bardeetan turismoa egin nahi duen edonork Errege Bardeetako Komunitateak egunotan paratu dituen zedarriak errespetatu beharko ditu. Neurriak badu helbururik, Erriberako zona horretan turismoa arautzea eta gune batzuetan sarrera debekatzeko hain zuzen ere.

Erredakzioa / Iruñea

BARDEAK aisialdirako gune dira aspalditxoan. Orain arte Bardeetan barna ibiltzea libro zen, baina orain kontuak aldatu egin dira. Turisten oldeak gero eta handiagoak dira, eta bertako ingurugiroari kaltea egiten zaiola aintzat hartuz, Errege Bardeetako Komunitateak nondik ibili behar den eta nondik ez azaltzen duten hainbat zedarri paratu ditu Bardeetan. Zedarri informatiboak joan den ostiralean hasi ziren ezartzen eta irailaren erdialdera bukatzea espero da.

Guztira Komunitateak sei milioi pezeta (240.000 libera inguru) gastatu ditu bertan turismoa behar den bezala arautzeko. Hamabi panel informatibo paratu ditu Bardeek dituzten beste hainbat sarreratan, eta beste 200 mugarriz jartzen ari dira La Blanca eta La Negra ibilbidetara doazen bidegurutzetan. Mugarriz koparenari egin beharko dio kasu hemendik aurrera bisitariak, ezin izanen baita guztira 200 kilometro baino gehiago duten ibilbide horietatik atera. Hori bai, ibilbidea bizikletaz, oinez edo autoz egin ahal izanen da.

Zedarriek hiru informazio pla-



Bardeek jasaten zuten jende oldea dela eta erabaki da turismoa arautzea.

JOXE LACALLE

ka daukate, turistek jakin dezaten ibilbidearen zein kilometrotan dauden, parajearen izena eta ezaugarriak, eta ibilbidea iristen den bidegurutzetik aitzina jarraitu daitekeen ala ez. Bestalde, Bardeetako hamabi sarreretan jarriko diren informazio paneletan orografia eta egin daitezkeen ibilbideak azalduko dira batetik, eta, bestetik, arau batzuk agertuko dira. Arau horien arabera, debekatuta dago ani-

mallak, landareak eta mineralak biltzea, eta animalien kasuan gainera izutzea edo hiltzea. Era berean, besteak beste, ezin izanen dira batera ibili hiru auto edo gehiago, kirol lehiaketak antolatzeko debekatuta egongo da, kanpaldiak edo eskalada egitea ere bai, eta autoa ezingo da utzi aparkatzeko guneetatik kanpo. Arau hauek guztiak betetzeko Bardeetako zaintzaileak ezezik Guardia Zibila eta Foruzangoa

ere ariko dira lanean.

Errege Bardeetako Komunitateak bertako belardiak eta lurrak erabiltzen dituzten nekazari eta ganaduzaleei hartutako neurrien berri helarazi die txosten batean. Txostenean informatzeaz gain, eta beti ere Bardeek azken urteetan izan duten galera ekologikoari erreparatzeko, belardiak nola aprobetxatu daitezkeen hobeto ere galdetu zaie betiko erabiltzaileei. X

Berriozar

Asteazkenean hasitako jaiak asteburuan jarraituko dute

■ Gaur antzerkia eta haurrentzako animazioa izanen dira Eguzki enparantzian

Erredakzioa / Iruñea

BERRIOZARREN asteazkenean hasi ziren jaiak Julian Fernandez Iuko zinegotziak bota zuen txupinazoarekin. Jende ugari bildu zen arratsaldeko seietan erraldoien, txarangen eta dantzari taldeen inguruan festei hasiera emateko. Asteazkenean hasi baziren ere, asteburuan eta gaur jarraituko dute astelehenean bukatzen baitira. Herriko kultura taldeak eta elkar- teak izan dira egitaraua egin dutenak.

Egitarauan badago zer ikusi eta non ongi pasa. Gaurko eguna herrian barna Musika Elkartearen akordeoi taldeak egiten duen kalejirak abiatuko du goizeko hamarretan. Ordu eta erdi geroago umeen txanda izanen da, erraldoi eta kilikien konpartsa ibiliko baita Gipuzkoako etorbidean, Artekale eta Agustin Deunaren kaleetan, besteak beste. Ondoren, etxeko txikiek haur animazioa izanen dute Kiki, Koko, Moko eta Flax taldearekin Eguzki enparantzian. Arratsaldean ere izanen dute non disfrutatu haur jaialdia baitago beraiantzat toki berean arratsaldeko seietan. Arratsaldean ere, baina orduetako lehenago eta aurreko egunetako ohiturari jarraituz, bigantxen txanda izanen da Osasun Etxearen ondoan. Pilota gustoko dutenek ere izanen dute partidu profesionalak ikusteko parada. Arratsaldeko seietatik aurrera Goñi II-Armendariz bikoteak Nagore-Lasa III bikotearen aurka jokatu du eskolako kiroldegian. Txupinazoaren egunean espetxean dauden bi preso —Fermin Sanchez eta Alfonso Arnesto— gogoratu baziren gaur preso guztien amnistiaren aldeko kalejira egiten da arratsaldeko zortzietan. Festa eguna Iratxo taldeak eskainiko duen kontzertuarekin akituko da.

Bihar ere izanen da zer egunik Berriozarren. Musika bandak zortzietan egingo duen dianaren ondoren atzo bezala erraldoi eta kilikien konpartsa ibiliko da herriko karriketarik barna. Gaurkoa haurren eguna bada, bihar txanda etxeko helduenena izanen da. Ordu bateko mezaren ostean bazkaria izanen dute 101 tabernan. Herri kirolak ere izango dira seietan.

Eguna bukatzeko Drindotsen dantzaldiaz landa aza salda banatuko da goizeko ordu bietan Eguzki enparantzian, eta bostetan kukaña izanen da Zulo Alai elkartearen ondoan. X

Ihabar

Herriko festak dituzte asteburuan

■ Ihabarko jaiak gaur hasiko dira arratsaldeko seiak eta erdietan botako duten txupinazoarekin

Erredakzioa / Iruñea

UDA badoan arren oraindik badago jaietan non ibiltzerik, Ihabarren adibidez. Jende oldeak eta bultzadak maite ez dituenarentzat aproposa da Ihabar, festak asteburuan izan arren giro polita eta lasaia izaten baita nagusi. Festa gaur hasiko da arratsaldeko sei eta erdietako txupinazoarekin eta astelehenean bukatuko. Dantzaldia ere izanen dute Haritza taldearekin eta, nola ez, herri askotan ohitura eta lege bihurtu den herri afari bikaina. Hala ere, gaurko egitarauan politena eta herritarrek gustukoan

duena Ihabarko ingurutxo eta paretara gainera jota dantzatzeko da. Ihabartarrek Leitza eta Iribasen egiten den moduan euren ingurutxo berezia dantzatzeko parada izanen dute.

Bihar ere izanen da non pasatu ongi. Eguerdiko hamabi eta erdietan esku pilota partiduak dituzte eta arratsaldeko bostetan etxeko erronda eta zezenketa. Herriko gazteak etxeko etxe ibiliko dira musikaz lagunduta jai giroa pizten. Arratsaldean eta gauean dantzaldia izanen da Trikimailu taldearekin. Biharko eguna, gaurkoa bezalaxe ingurutxoarekin eta paretara gainera

jotarekin bukatuko da, asteburu aprobetxatuz herrira hurbiltzen direnek dantzatzera ausartzen den edonor aurkitzen baidute bederen.

Igandeak ere ekarriko du gauza franko egitarauan. Arratsaldeko ordu batean herriko dantza taldeak Ihabarko ingurutxo dantzatzeko du plazan, seguruenerik bezperakoek baino hobeto. Ordu erdi geroago hankak mugitzeko edo, trikitixa soina izanen da. Arratsaldean, bost eta erdietan herri kirolari egokituko zaio txanda. Geroago eta gauerditik aurrera ere dantzaldia izanen da berriz ere Trikimailu taldearekin.

Astelehena festen azken eguna izanen da. Haurrek badute zeregirik egun honetan. Eurentzat herriko plazan, bai goizean bai arratsaldean, hainbat joko antolatu baitituzte. Arratsaldeko hiruretan herri bazkaria izanen da gose denarentzat eta, asetu ez denarentzat, seietan txokolata. Hori bai, digestioa egiteko mazorroen eta buruhandien aurrean ibili beharko du lasterka, bigantxen faltan edo, gusto badu, gaueko hamarretan herrian barna ibiliko den zezen-suzkoa toreatuz. Festak Paradis orkestra txikiaren dantzaldiarekin bukatuko dira. X

Euskal izkribu
zaharrak aztertzen

Aezkeraren izkribu berri bat

Abaurrepeko Bikario Jaunbleoren bertsoa eman du ezagutzera berriki Urdirozek

Irene Arrizurieta / Iruñea

AEZKERA euskalkiak ez du testu zahar asko. Gainera, hiztun gutxi ditu, berrehun inguru da egungo kopurua. Zorioneko aurkikuntzaren meritua Ines Iribarrenena da. Iribarrenek, beste askok bezala, bizitzan lan eta lan aritu eta gero, orain, gustuko gauzak egiteko denbora hartu du. Egun Iruñean bizi da. Euskara ikasten hasi, eta Abaurrepean ikasi zituen hitz bakan batzuk (gaugaldu; horra bada; sabarrauts; jaio behintzi Baleneko hiria; txirristi-mirristi, gerrena plata, olio zopa, kiriri salda, hura bero, klik; birus tiraka, birus tiraka; zupazter) gogoratu eta sakontzeko aukera izan du. Inesek esku-izkribua Abaurrepeko Lopinda sortetxe izandakoan aurkitu zuen, etxeko traste eta izkribu zaharren artean begiratzaren ari zenean. Konturaturik euskaraz zela eta berak ez zuela ulertuko Juantxo Urdiroz irakasleari helarazi zion aztertze-ko. «Esku-izkribua erakutsi zidanean, bertsolari hark Xalbadorren heriotzaz esan zuena gogora etorri zitzaidan. Ez da posible, ezin liteke. Euskarazko testu bat. Euskara pausu luze atera egiten duen lurralde batekoa. Literarioa. Luzea. Eta horren ederra. Ez da posible, ezin liteke». gogoratzen du Urdirozek.

Abaurrepeko Lopinda etxean bertsoa agertzea ez da harrizkoa. Abaurrepeko Bikario jaunbleoren bertsoa aurkitu zuenak dienez, Jose Manuel Arrese, 1850 urtearen inguruan jaioa eta Inesen aitaxi, bertsozalea zen eta bertsoak etxeko giroan botatzen ere ibilia. Gainera, Jose Maria Arrese osabak (1888-1945) gitarratxoa hartu eta Amerikan ibili zen habanerak kantatzen zituen gerra zibilaren aurreko negu haletan. Hala ere, bigarren honetaz deus gutxi gelditu da. Amerikatik dirua ekarri zuen eta ederki asko bizi omen zen hona etorri eta gero, baina turberkulosiak jota hil zen eta zituen balorezko gauza guztiak erre egin ziren. Beraz, ezin aurkitu datu gehiegi.

Ez dago esan beharrik biak euskaldunak zirela, eta baliteke aipatu balada lehendabizikoak egina eta bigarrenak jaso izatea. «Usteak baino ez dira, baina ezin uka bertso bat sortzeko eta paper batean idazteko behar den zale-tasuna eta gogoa ez zitzailela falta Lopindarrei. Bertsoa Abaurrepekoa da, eta abaurpetar batek egina dela aisa sinestekoa. Bertsoaren hasieran den San Martin eliza Abaurrepekoa da, pasadizua herri horretan kokatua egonik», nabarmendu du Urdirozek testuari buruz egindako azterketan.

Urdirozen arabera, «sormen lana agerikoa izanik, ez da gutxi beste bertsoetatik ekarri duena ere. Horixe da, hain zuzen, poeta


A baurrepeko Bikario Jaunbleoren bertsoa argitaratu da Nafarroako 'Fontes Linguae Vasconum' aldizkarian. Aezkeraz idatzitako testu gutxi direla aintzat hartuz, badu garrantzirik. Ines Iribarrenek aurkitu zuen Abaurrepeko Lopinda sortetxean eta Juantxo Urdiroz irakasleak aztertu du. Berak azaldu duenez, helburua «Aezkoako euskarara hurbiltzea da eskualde honetako euskalkia hobeto ezagutzeko».



Jose Maria Arrese, Ines Iribarrenen osaba (eskuinean), ahaide batekin. Bikarioaren testua berak jaso izan daiteke. UDIRAZ



Bikarioaren bertsoaren hasieran aipatzen den Abaurrepeko San Martin eliza (ezkerrean), eta bertsoan aipatzen den elizaren sarreretako bat. UDIRAZ



herriko baten lana, ahozko literatura tradizioan harremanetan ibiltzea. Hizkera, dudarik gabe, aezkera da, baina zenbait herri-tan dagoen polimorfismoari bertso honetan beste elementu bat erantsi behar zaio: hau literatura da, eta egileak han eta hemen aditutakoak sartu ahal izan zituela bere lanean.

Abaurrepean bertso honen berri ez dute. Ezta Garraldan ere, baina Abaurregainean bazuten

balada horren berri. Bertako Maria Arozarena emakume euskaldunak baladako bi bertso hauek gogoan zituen: *Mantu beltza lurreraino / cabardina erdirreino*. Hala ere, Urdirozen irudiko, «bi bertso horien ezagutza beste bide batetik etor lekiok informanteari. Guk, aipatutakoak kenduta, ez dugu gehiagorik arakatu, eta baliteke nonbait bizirik egotea».

«Egileak nahita edo, testua na-

hiko iluna da», dio Urdirozek. Metaforaz josia da. Besteak beste aurki daitezke: *Begutac urre botones eta / escuac urre zillarres bezelakoak*. Beste asko, erabat berriak dira eta abeltzaintzarekin lotuak daude *ardiac daza / belarrez erriberaco canpadres*. Era berean, Juan Mari Lekuonak deitutako koplak zaharren bikoiztasunaren teknika aurki dezake irakurleak frankotan. Oso arrunta den *ceruan eder lizarra /*

errecalderaco lizarra hain zuzen ere.

Egituraren aldetik, istorioa Abaurrepean dagoen San Martin elizaren atarian hasten da. Herriaren barrera ibili ondoren, bikario jauna azaltzen dituen bertsoak tartekatzen dira eta balada hasierako tokian amaitzen da: elizan. Bestalde, kontatzen den istorioa ez da ezaguna ez herriaren bertan, Abaurrepean, ez ondoko Abaurregainean. Istorioaren protagonista nagusia bikarioa da. Poeman ez da hitz txarrak erabiltzen, gizon horren irudia goratzeko hitzak baizik. Hasieran, *maistro onak ez arri dago* eta honek hainbat interpretazio izan ditzake. «Apaiza haragizkoa dela uler liteke edota epaileek haragizkoak, errukidunak izan behar dutela. Bata edo bestea izanda agerikoa da katarsi kolektibo batean bageunde bezala, barkatzeko erraten dela: *Orra bada errico chiquin andi guziev / barca dezoten berrori*. Bukatzean, «fulana andre» bat agertzen da, baina ez du argitasun gehiagorik ematen. Urdirozek ustez, «balada honek kontatzen duena gauza jakina izanen zen, eta ez zuten azaltzeko beharrik. Nik uste, istorioa argi daitekeela Iruñeko Elizbarrutiko Artxiboan miatuz gero».

Testua aztertu duenaren asmoa «bertsoaren bidez eskualde honetako euskarara hurbiltzea bertako euskalkia hobeki ezagutzeko» dela aintzat hartuz, Urdirozek bertsoa ondoan dituen euskalkietatik —Goi nafarrera— eta azpieuskalkietatik —zaraitzuera— besteak beste, bereizten saiatu da. Hala ere, hemen ez da azterketa osoa agertuko baizik horren lekukotasuna diren adibide eta aipu batzuk besterik.

Honi guztoni erreparatuz, bertsoa izatean dialektologiaren ikuspegitik aztertzean testua berr mugatzen du. Irakasleak azaldu duenez, esku-izkribuak baditu bertako gauza franko: hiztegi (hari, chucatu, txikin edo birus) edo esaeren ordenan. Azken honetan, Hegoaldeko beste euskalkietan ez bezala, laguntzailea nagusiaren aurretik jartzen da; (camieta da pintatu, ichasoan da plantatu, esquilac dira errepicazen). Fonetika aldetik ere baditu gauzak. Polimorfismoa da nagusi, ifiaki Kamino filologoak aezkeraren polimorfismoaz esandakoaz gain, hemen kontuan hartu behar da bertso asko Euskal Herriko ahozko literaturatik ateratakoak direla, denen ahotan zebiltzanak Abaurrepera egokituak. Hori dela eta, baditu zenbait kasutan bi emaitza: (Aferesiak eta sinkopak, -o edo -u iparraldean eta hemen biak batera agertzen dira (urre-orre) besteak beste. Bitxikerien artean aipatzekoa da superpeliza (gaztelaniaz *sobrepeliza*-a dena) Erdi Aroko mailegua dela. Beraz, testua kokatua dago, baina azterketa dialektal sakona egitea adituei dagokie. X

Euskal izkribu
zaharrak aztertzen

Abaurrepeko
Bikario
jaunblearen
bertsoa

San Martinen atari
maestro onak ez arri
bada Bicario jaunbleori
gan sarzean agueri.

gan sarzean agueri eta
berazean obequi
berazean obequi eta
bidean yoaiten cortesqui.

lizarain iturri
ere birus derati
bada Bicario jaunbleorrec
gan icuzten badaqui.

gan icuzi gan chucatu
majina du iduri

chean eder mandio
mandazai orrec adio
bada Bicario jaunbleorrec
zazpi erresuma balio

chean eder guerra
erdianzean da goyena
bada Bicario jaunbleori
bizarizuan goena.

amieta da pintatu
hasoan da plantatu
bada Bicario jaunbleori
bizarizuan fundatu.

esquilac dira errepicazen
ria benedicazen
bada Bicario jaunbleori
inguiruequin da minzazen.

Bicario jaunbleori
lizan bere arrosario sainduequin
bada ainguiruec cantatzen diote
ere escu sainduekin.

agarra da sagarzean
arri eta lur ozean,
bada Bicario jaunbleorrec
mabi ainguiru biozean.

biñac daza
lizarrec Erriberaco canpadres
bada Bicario jaunbleorrec
lizararte ori zilarres.

lizararte ori zilarres
beguiac orre botones
beguiac urre botones eta
beguiac urre zilarres.

erian eder izarra
precaldeco lizarra
bada Bicario jaunbleorrec
ere birus du bizarra



erian eder liburu
ere birus inguru
bada Bicario jaunbleori
bizarizuan ainguiru

erian eder caliza
erian super peliza
bada Bicario jaunbleori
ere email cortesa.

erian beldza lurreraino
erian ardina erdireino
bada Bicario jaunbleorren
pareric ezta
erianancatic gonaino.

erian eder arri gorri
erian jarri Bicario jaunbleorri
erian bada erriico chiquin andi guziec
erian dezoten berorri.

erian eder arguizari
erian berequi eta arguilari
erian bada fulana andre ori
erian Bicario jaunbleorren cerbizari.



Jimeno Juri historilariak (ezkerrean) eta Patxi Salaberri filologoak (eskuinean) Amenduzeko Juani buruz datu berriak eman dituzte.

JOXE LACALLE

Iruñeko euskararen inguruan datu berriak

IRUÑEAN euskaraz aurkitu den testu bakarraren inguruko — Amenduxko Juan-en (1540-1580) elegia— datu berriak ere plazaratu berri dituzte. Jimeno Juriok elegia noiz eta non idatzi zuen jakin ahal izan du, eta Amenduxen bizitzaren datu berriak aurkitu ditu. Horren arabera eta aurretiaz zeuden azterketak aintzat hartuz —Jose Maria Satrustegi, Aingeru Irigarai eta Luis Mitxelena—, Salaberrik berri egin du azterketa dialektala. Elegia Jose Goñi Gaztanbidek —Iruñeko Katedraleko agjirizaina— aurkitu zuen Nafarroako Artxibo Orokorra sailkatzen ari zenean. Jimeno Juriok bilduma aztertuz jakin zuen gutxi gorabehera Amenduxen jaiotze data, eta zehatz-mehatz heriotzarena. «Ordura arte ez ziren ezagunak kartzelaratzeko arrazoiak, ezta ere elegia hori ez zuela Iruñeko espetxean idatzi baizik eta Tafallakoan, gertaera kurioso baten gatik: Iruñean izurritea izan zen eta Errege Batzorde osoak nahiz Erresumako Epaitegiak ez kutsatzeko hemendik aldegin zuten beste hiri batzuetara eta, kasu honetan, Tafallako Errege Jauregira joan ziren eta hango espetxean idatzi zuen elegia».

Amendux-ek bizitza mugitua izan zuen, hanat eta honat ibili zelarik. Jimenok ere ibilera horiek kokatu ditu. Zortzi urte zituela umezurtz geratu zen eta bere tutoreak —Valtierran zirujano zen Osesko Juan— herriko gotzainarekin idatzen eta irakurtzen ikasten jarri zuen, eta hurrengo urtean Tuterako liburu-zain batekin. Jimenoren irudiko, «horrek adierazten du ordura arte euskaraz mintzatzen zela. Gero, gaztaroa, Iruñetik kanpo egiten du, baina euskaldunekin.

Valtierran ere euskaraz hitz eginen jarraitzen du, bai eta Iruñera itzultzean ere». Ibilera asko egin zituela ikusita, gizon egin ondoren ere euskaraz idatzen jarraitzeak harritu egin du Jimeno, Amenduxentzat errazagoa baitzen gaztelaniaz egitea. «Honek esan nahi du bere tutorea euskalduna zela eta seguruenik garaian Erriberan asko zirela Iparaldekoak eta Nafarroako mendialdekoak. Euskal hitzgun garrantzitsuak zeuden, joan-etorrian ibiltzen zirenak gehienbat».

Zaragoza eta Flandrian mertzero ikasten ibili eta gero Iruñera itzuli eta negozio bat jartzen saiatu zen, baina ezin izan zion aurre egin hipoteka mailegu bati eta espetxeratu egin zuten. Espetxean bere pena eta atsekabeak ezagutarazi zituen euskaraz idatzi zuen elegian. Jimenok dioenez, «Bernard Etxepareren *Linguae vasconum primitiae* liburuaren ostean Amenduxena da euskaraz idatzi den testu

garrantzitsuenetakoa».

Patxi Salaberri filologoak, era berean, izkribuan Satrustegik, Irigarai eta Mitxelenak aztertu ez zituzten gauza asko bazirela oharturik, beste azterketa dialektologiko bat egin du. Jimenorekin orijinala ikusi eta gero bide eman die interpretatzeko garaian. Arazoa zen hitzak nola interpretatu eta irakurri behar diren. «Nahiko motza da eta, hala ere, oso gauza arraroak ditu idazteko orduan. Lehendabizi gauza bat idatzi eta gero gainetik beste bat idatzi balu bezala ageri da», azaldu du Salaberrik. Elegia Iruñeko euskara nolakoa zen jakiteko oso interesgarria da, ez baitago beste testurik, ez Iruñekorik behintzat, ingurutakoak (Ezkabarte, Ibero, Elkano, Uterga) badiren arren. «Ni saiatu naiz testuan agertzen diren ezaugarriak inguruko herrietako autoreen idazlanetan nola agertzen ziren aztertzen. Alderdi horretatik ikusten dut batzuetan —beti ere kontuan harturik testua XVI.

mendekoa dela— Elkanoko Lizarragarekin doala (XVIII. mendekoa), Beriainekin (XVII.koa) eta Iberokoarekin (XVIII-XIX.koa). Hor denbora kontuan hartu behar da, euskaraz ez baitzen orain eta orduan modu berean egiten. Ikusten da gauza batzuetan Elkanok bezala *nihork* erabiltzen duela eta Iruñerrian, berriz, *igor*. Beste ezaugarri batzuetan, berriz, Iruñerriko mendebaldekoekin doa. *Anima* garbi agertzen da, Hegoaldeko goi nafarreran *anima* agertzen da eta zenbaitetan *anima*. Garesen *anima* eta Oltzan eta Goñerrian *anime*. Biak Iruñetik mendebaldera ibili izan dira eta horiekin batera doa». Era berean, garrantzitsua da ergatibo plurala nola egiten zen. «Elkanokoak -ek erabiltzen du beti baina gero ikusten dugu Garesen, Oltzan eta Goñin -ak doala, eta orduan hemengo gizonak egin dute edo gizonak egin dute den jakitea inportantea da olerkia zuzen interpretatzeko. Olerkia ikusita Iruñean -ak egiten zela dirudi». Horren arabera interpretazioa aldatzen da. «Adibidez: *Plazerac azqueno asegabe biurturic, haideac eta adisquideac artes gutis acenduric*. Aidea eta adiskideak izan daiteke osagarri zuzena edo sujetua. Baina, Amenduxek Tafallako kartzelan egin zuen olerkia, eta ez da normala bere ahaideez ahaztea. Olerkiari hobekien doakiona da ahaideak eta adiskideak denbora gutxitan ahaztu direla olerkariak. Hori puntu inportantea izan daiteke dialektologian -ak7-ek arteko muga Iruñean kokatzen delako». Dialektologiarako zuzen interpretatzen badira ezaugarriak bai Iruñerriko ekialdearekin doazenak, bai mendebaldearekin. X

Juan de Amenduxen olerkia

*Hemen naça orçiriq noyzbait GOzo ERic
ric erioac huste gabe dolorosqui EgociRiq
Ene anima Jangoycoagana belDuRiqui partituric
lagungabe bide lusean peril asko pasaturic
honac eta horrac bertan muduac ydequiric
plazerac azqueno asegabe biurturic*

*haydeac eta adisquideac artes gutis acenduric
ycuste(n)tul 12 ysuriRic arrece gusià des Eginic
argi gabe yllunbitan hustel Eta quibrasturic
nigar begi bapederac bere aldias oRoituric
niorcore isanen Estu ni estudan partiduric*

*Ene anima duçuen gomendatu garitates mobituric
çaRayz quiDate g-bertan yçoc ongi notaturic
Josafate baturen gara judision ElcaRequi
bitartea ladogigun baquea dela gusiequi.*

Xanti Begiristain

Telenabarrak nahita
desinformatzen du

■ Bai, badakit gaizki idatzita dagoela. Nahita egin dut, *Telenabarra*-koak kontura daitezzen zer-nolako itxura izaten duten informazio okerrak ematen dituzten gutzietan.

Esate baterako, aste honetan esan zuten egun bateko albistegian, Luzaide eta Arnegi (edota Iparraldeko beste herri baten jendearekin) istilutan dabilzala ehizako usategiak direla eta. Hau da, Iparraldeko ehiztariek ez ote duten ordaintzen pagatu beharreko gutzia, aprobetxatzen ari ote diren Luzaidekoek, eta abar.

Hasteko esango dut nik ez dudala oso ongi ikusten ehizaren kontua kirol bezala, hots, adierazi nahi dut onartzen dudala animaliak hiltzea jateko, benetako beharra dagoenean, baina bestela ez. Alegia, gizakiek izaki bizidunak, animaliak kasu honetan, akabatzea pertsona horien gozamen hutserako, ba, zer nahi duzue esatea? Besterik gabe, ez dudala batere bidezkoa ikusten. Baina beno, Iparraldeko euskal herritarren eta luzaidarren beharra ez dakidanez zehatasunez zein punturaino den handia ala ez, gaurkoz auzi horretan utziko dut gehiago kritikatu gabe.

Baina itzul gaitezuen berriro ere hasierako gaira, hitz batez, mamira. Hara, aipatutako zorioreko egun horretan, *Telenabarra*-ko esataria behin eta berriz amorratzen zen azpimarratzeko, bereizteko eta argi uzteko Luzaideko biztanleak nazarrak direla, eta ondoko auzotarrak, berriz, frantsesak. Eta beno, bat ez denez tuntu, hasten da gogoetan eta pentsatzen du «baina zer arraio gertatzen zaie *Teleñabarra*-ko horiei? Agian ez ote dakite oraindik Arnegi eta ondoko herriak Nafarroa Beherean daudela, eta hortaz, hango biztanleak ere Luzaidekoak bezain nafarrak direla?». «Nafarroaren Eguna, jakin beharko lukete ba, Baigorri ospatzen dela!». Bestaldetik, oso interes handiz azpimarratu ohi dute gure oinazetako *Telenabarra* horretan Iruñea eta Yamaguchi, esate baterako, senideta daudela, eta ponpozeria horrekin zer esan nahi digute, aurkako bi polotan dauden herriak senideak direla, eta aldiz, elkarren ondoan daudenak, hizkuntza bera dutenak (jatorrian), kultura, ohiturak, folklore berdinak eta guztiz antzekoak dituztenak, ordea, horiek ez, ez

direla ez senideak ez eta nafarrak ere? Eta gainera, gaur egun, jende guztiak gero eta gehiagotan hitz egiten duenean, adibidez, Europako hainbat eskualderen batasunaz...?».

Bi aukera ditugu, edo pentsatzea *Telenabarra*-koak zozo hutsak direla eta ez dakitela hainbat eta hainbat gauza, edo bestela, baiezteko komunikabide horretako zuzendari, gidari, arduradun, diru-jartzaile eta nagusiek ez dutela oso borondate onik erakusten egia, zuzentasun eta euskal kulturaren alde. Gehienok dakigu bidea bigarren aukeran dutela. Zer uste zuten ba, gu ergelak ginela ala? Bestela zuek esanen didazue nola jar daitezkeen hainbeste akats egun berean, jokatu nahi baldin bada zuzen euskara eta euskaldunetako? Esate baterako, programa horretan bertan honako aldrebeskeriak jarri edota esan zituzten



denbora gutxian matrailak batere gorritu gabe, alegia, «Etxarri-Aranaz, Uharte-Arakil, Valcarlos, Itoiz eta Olite», beste hauek esan beharrean: Etxarri-Aranatz, Arakil-Uharte, Luzaide, Itoiz eta Erriberri.

Gure zoritxarrerako beste horrenbeste egiten dute gainerako telebista, irrati, egunkari eta komunikabide gehienek orokorrean.

Horren arabera, Iparraldeko zein Hegoaldeko, badakigu, lan ikaragarri handi eta luzea dugula, zeren eta esaten baitut irakatsi behar zaiola ez dakienari. Baina aizue! Ikasi nahi ez duenari ere irakatsi behar al zaio gogoaren aurka?

Eta bukatzeko beste galdera tolesgabe bat *Telenabarra*-ko zuzendariari: Zertarako jartzen dizkiguzue, albiste guztiak gaztelaraz entzun ondoren, laburpen arrunt motzak euskaraz eta erdal azpigituluekin? Jakina, tolerantzia! ■

Klasiko bitxi, arront klasiko

Joxemiel Bidador

Juana Ines Asbaje
Mexikoko hamargarren
musa zenaz mintzo
aspertuan

■ Mexikoko *Novedades* egunerokoak, Sor Juana Ines Gurutzekoaren hirugarren mendeurrena ospatzeko aitzakian, emakume handi horri buruzko lehiaketa artistikoa antolatu zuen 1951.ean. Lau izan ziren saritu sormen lanak, hala nola Alberto Salcedak Sor Juanaren amorioez taxuturiko idazkia, Cecilia Gilarteren Sor Juanaren bizitza eta lanei buruzko saiakera, eta Reveles nahiz Ezkerraren margolanak. *Novedades* egunkariak bere igandeoroko gehigarriaren batean, Gilarterena izan ezik, beste hiruren berri zehatz eta mehatz bazuen eman, izan ere orduko mexikar bati baino gehiagori ez bide zitzaiolako batere atsegingarri agitzen Asbajekoaren euskal etorkia, Gilarterek berak bere saioan behin eta berriz oroitarazi zion moduan. Zernahi ere, handik zazpi urtera egunkari interesatu horrek eragindako nahasturia konpontzeko bidea ezarri zen. Buenos Airesko Ekin argitaletxe ezagunaren eskutik Gilarteren *Sor Juana Ines de la Cruz: claro en la selva* izenburuko liburua argira elki zenean. Naski hauxe ezteza izan Asbaje andrea gaitzat izan duen lehendabiziko izkribua, ezta gutxiagorik eman ere, baina bai ordea, onartu behar zaio euskal etorkiaren zioa sakonki landu duen lehen ikerketa saioa izan dela.

Bergararrak zituen aitaren aldetiko sustraiak. Pedro Manuel Asbajek Deba ibarretik Mexiko aldera jo izan zuenean, Isabel Ramirez-Santillana deituriko andrearekin ibili zen harremanetan, eta ezkondu etziren arren, bi alaba eta sema izan zuten. Ahizpa txikerra dugu Sor Juana Ines, Nephantako San Migelen 1651.eko azaroaren 12an sortu zitzaiguna. Gilarteri jarraikiz, astronomia, botanika, kosmografia, literatura edota arkeologian aditua zen Jose Antonio Altzate izan zuen askazi, Itxazihualt zein Xochicalcoko meategiak ikertu zituen berbera, eta harengandik akaso ikasteari hartuko zion laketa. Hiru urte besterik etzituenean, irakurtzen ikasteari ekin zion gogotik, eta zazpi urtetarako, temati erregetzen zion amari unibertsitatera joaten utz zezala, gizonaz jantzirik behar izan ere. Bederatzi urterekin aitorenaren etxera joan zen Mexikora, eta bertan, latinean eta filosofian trebatu zen Pedro Jose Olivas osaba zuzendari. Gortean sarturik, Mexikoko erregeordea zegoen Mancerako markisaren ohorezko dama izan genuen. Honen jauretxean erregeordeak berak aitzinaraturik eta orduko berrogei jakintsuk epaiturik, azterketa publikoa egin behar izan zuen hamazazpi urtetan, jakintza arlo oro hitzgai zuelarik. Esan beharrik eztago garaile atera zela proba astun eta mikatz horretatik.

Edertasun handiko emakumea, galaien faltan etzen egon, haatik bakarra zuen erraiak zimkatzen zizkiona, eta zoritxarra gorpuztu zenean bere maitalea herioak eraman zezala utzirik, ezte atarian alargungai geratu zen gixarajoa. Gertaera erregatutik mendeari destaina zion alhertsu, eta kometuan sartzeko erabakia sendo eta aldaezina etsi-etsian hartu zuen. Hiru hilabetez solik iraun zuen San Joseko karmeldar oinutsiekin, nondik eri jalgi zen, alabaina bere asmoetan irmo, bigarrean zatekeen aldia, eta 1669.eko otsailaren 23a izan genuen San Jeronimoko lekaidetxean betiko sartzeko aukeratu zuen eguna. Mexikoko mojarregian nahikoa asti zukeen gogoan zituenak izkiritzen segitzeko, eta etzen batere makala izan paperean utzi zitzaiguna. XVII. mendeko Hego Amerikako olerkaririk bikainena genuen, Mexikoko Hamargarren Musa deitu zutela garaikideek. Antzerti lan zenbait ere atondu zituen, hala nola lau auto sakramental —*Divino Narciso*, *San Hermenegildo*, *El mártir del sacramento*, eta *El cetro de José*— nahiz bi komeri —*Los empeños de una casa*, eta *Amor es más laberinto*, non Calderonen eragina aisa nabari atzeman daitekeen. Hitz lauz ere saioerik jori eta naroenen neurrian ibiltzen jakin izan zuen, baita polemikaren harian ere. 1650.eko Aste Santuan, Antonio Vueyra Portugalgo josulagun ospetsuak Lisboaan ogtzuriko prediku bati buruzko iruzkinak diren *Carta Athenagórica o Crisis sobre un sermón* argira atera zuenean, Juana Inesen aitorea zen Nuñez Mirandak lagundiaren aitzaki erasotzat harturik, saminki dauseztatu zuen. Pueblako gotzaina Manuel Fernandez-Santakruzek, Sor Filotea de la Cruz ezizenaren azpian, Asbajekoari zuzenduriko eskutitz ireki bat karrikaratu zuen pakearen bila, eta mojak halaber, *Respuesta a Sor Filotea* izenburukoaz ihardetsi zion amoltsu baina zorrotz. Bere lanen lehendabiziko bilduma Madrilen agertu zen 1689.ean *Inundación castállica de la única poetisa, musa décima Sor Juana Inés de la Cruz* izenburu apian, eta harrezkerotik antz izan dira eginiko edizioak.

Euskaraz etzuen ezertxo ere funtsez idatzi, baina ezaguna dateke ondu zuen honako billantziko hau: «Pues que todos han cantado / Yo de campaña me cierro / Que es decir que de Vizcaya / me revisto dicho y hecho / Nadie al vascuence murmure / Que juas a Dios eterno / Que aquesta es la misma lengua / Cortada mis abuclos. ■



Iruñeko Hiria xake torneo txiki bostgarren jardunaldiko partida, 1995eko abenduaren 31n jokatu.

Roman Slobodjan (Alemania), 2.500 ELOkoa — **Julio Granda** (Peru), 2.605 ELOkoa.

1) e4, c5; 2) Zf3, Zc6; 3) d4, d4; 4) Zd4, Zf6; 5) Zc3, d6; 6) Ae2, e5; 7) Zfe, h6; 8) 0-0 Ae7; 9) Ge1, 0-0; 10) h3, Ae6; 11) Af1, Db8; 12) Zd5, b5; 13) a4, b4.

Aurrerapen hau kaltegarria gertatuko zaie. Ez dago ondo neurtua.

14) Ab5, Ad5; 15) d5, Za5; 16) Zd4, a6; 17) Ad3, Ge8; 18) Zf5, Af8; 19) Df3, Dd8; 20) Ad2, Zb7.

Beltzen erabakia ez da erraz ulertzekoa, baina piezen mugimendu askatasunarekin zerikusirik izan dezake.

21) Ab4, g6; 22) Zg3, Zg7; 23) De2, Dh4; 24) Aa3, bZ-c5; 25) Ze4, Ze4; 26) De4; 27) Ae4, eG-c8; 28) ce, a5; 29) Ad3, Zb8; 30) Ab5, Ag-b8; 31) eG-d1, Zc4; 32) b4, Ga8; 33) Acl,

Ga7; 34) Gbl, Eg7; 35) Efl, Ae7; 36) Ee2, Af6; 37) Ac6, e4; 38) Gb3, Gb8; 39) Ab5, Gc7; 40) Af4, g5; 41) Ag3.

IKUS KOADROA. Alfiak peoia defenditu beharrik *Gda4* ahalbidetzen du. Beltzek aurreranzko bidea aukeratu dute.

41) ..., Gb5; 42) b5, a4; 43) bG-bl, a3.


Ac3 jokaldia ez zuen balio (44, dG-cl, Ae5; 45, Ae5, e5; 46, Gal, a3; 47, Ga3).

44) dG-c1, Gb7; 45) f3 xa; 46) f3, Gb5; 47) Ed3, Zb2 xa; 48) Ec2, Zc4; 49) Ael, Gd5; 50) Eb3, Za5 xa; 54) Eb4, Zb7; 55) c4,

Gf3; 56) Gb3, Gf1; 57) Ad2, Gf2; 58) Ae3, Gh2; 59) Agl, Gh1; 60) b6, Gg1; 61) Gg1, Ad4; 62) Gd1, Ab6 (jokaldi ezkutua); 63) Ec3, Aa5 xa; 64) Ec2, Zc5; 65) Gf3, Zb7; 66) Ga3.

Beltzen porrota. Partidaren jarraipenean zuriek jokaldi zehatzak aurkitu zituzten, oso zaila ez bazegoen ere.

Peoia erortzen zenez, partida utzi zuten zuriek. Azkarregi, baina zuloa egina zuten dagoeneko.



Baztango gazta, gaztarik hoberena

Begoña Etxandik eta Lourdes Irigoienek Arakil-Uharteko lehiaketa irabazi dute

Baztan bailarako zelaietan bertako ardiek jaten duten belarrean datza Baztan izeneko gaztaren arrakasta. Ardi gazta horrek Arakil-Uharteko lehiaketa irabazi zuen joan den igandean, eta Begoña Etxandik horren egileak haren sekretuak azaldu dizkio EGUNKARIARI.

Juan Kruz Lakasta / Iruñea

LAN nekeza da Begoña Etxandik direkin abuztuan hitzordua jartzea. Tenore honetan kanpotar asko hurbiltzen da Baztan aldera, eta gazta eskaerak nabarmen egiten du gora. Gainera, joan den igandean Arakil-Uharteko Etxandik eta Lourdes Irigoien bere lankideak Nafarroako Ardi Gazta lehiaketa irabazi zutenetik, oraindik eskaera gehiago heldu dira Arizkunetik. Baztan bailarako industri eremuan, duten gaznategira. Gauzak horrela, eguna kamionetan ematen dute, gaztak hona eta hara garraiatzen.

Asteazken gauean, Etxandik tartetxo bat egin zuen lepo betetako bere agendan, eta kontatu beharrekoak kontatu zituen. Baztan deitzen da berak eta bere lankideak egiten duten gazta, eta normalean horren kilo 1.650 (66 libera inguru) pezetan saltzen dute (dendek 1.500 pezetan, 60 liberatan eskuratzen dute). Joan den igandean, madrildar batek 225.000 pezeta (9.000 libera) ordaindu zituen kilo erdia nekez gainditzeko. Baztan gazta erdi baten truke, saria eskuratu zuen gaztaren erdiaren truke hain justu. Etxandik gehiegizkoa dela onartu zuen, eta, halaber, diru hori nork patrikaratzen duen argitu zuen. «Diru hori ez da guretzat, diru hori elkarrekin jasotzen du, antolakuntza ordaintzeko». Dena dela, sos batzuk irabazterik izan zuten. «Goizean gazta dohainik eman bai, baina ez genuen salmenta handiegirik egin. Hango apaiza etorri zitzaigun bisitan, eta esan nion 'Eman diegu jatera zure feligres guztiei'. Saria irabazi eta gero, bai, dexente saldu genuen».

Horren garesti saldutako gazta hura, saria irabazi zuena, ez omen zen bereziegia, Etxandik eta Irigoienek ez zuten eta hautaketa lanetan aritzeko asirik izan. «Inork ez du sinesten, baina egia da. Bertzetan beti egiten dugu egun batzuk lehenago atera gazna hozkailutik, bestela gaznak, hotzarekin, ez duelako zaporerik. Gero atera ditugun gaztetatik bat ireki egiten dugu, barrutik nola dagoen ikusteko, eta konforme baldin bagara, horietako bat aurkezten dugu. Bertzenaz, beste egun batekoa hartzen dugu. Honetan ahaztu egin zitzaidan. Zortea izan genuen, eta perfektu atera zitzaigun: azala, mamia, kolorea, zaporea, hondarreko zaporea...». Dena dela, ez omen zen kasualitate hutsa izan. «Ez da harrotzeagatik, baina gazta gehiena dezentea dugu. Jendea arras kontent izaten da gurekin». Jendea, oro har, eta lehiaketetako epaimahaikideak bereziki; izan ere, Arakil-Uharteko irabazteaz gain, aurten Bidasoan lehen saria ere eskuratu dute, eta Amaiurren bigarrena.

Baztan gaztaren arrakasta, Etxandik eta Irigoienek, Baztan bailarako zelaietan datza, bertako ardiek jaten duten belarrean. «Janariak ikustekoa du esnean, eta hortik aparte sekreturik ez dago, beno, esnea garbia izan dadila, bakterioologia ona, eta aurtengo neguan arras ongi ibili dira. Erraza da gazta lehengo moduan egitea». Etxandik eta Irigoienek duela zazpi urte ekin zioten gazta lehengo moduan egiteari. «Artzain gazta errezetekin hasi ginen lanean. San Martin eskolan ikastaroa izan zen, joan ginen, eta kitto». Modu horretan sortu zen Baztan gazta.

Urtean 11.000 kilo gazta

BEGOÑA ETXANDIK eta Lourdes Irigoienek 1989. urtean ekin zioten Baztan izeneko ardi gazta egiteari. Baztan bailarako artzainek Amaiur izeneko elkarte osaturik zuten, eta horretatik jaso zuten beharrezkoa zitzaizkien esnea. Orotara zortzi artalde ziren horren barnean. Horietatik zazpi eskuz jeisten zituzten artzainek, eta makinaz, berriz, bakar bat. Lehengai bikain horrekin, kilo batetik kilo eta zazpiehun gramora bitarteko gaztak egiten hasi ziren. Lehendabiziko urtean 5.000 kilo gazta egin zituzten Arizkunetik, Baztan bailarako industri eremuan duten gaznategian, eta bailaran bertan besterik ez zuten saldu. Egun, 11.000 kilo egiten dituzte, eta nabarmen zabaldu dute euren merkatua: Iparraldeko muga guztian banatzen dute (Ibardin, Izpegi, Dantzarinea...), eta Donostian eta Iruñean ere bai. Joan den igandean jasotako sariaren laguntzaz, gainera, bezero zerrenda mardultzea espero dute Baztan gaztaren egileek. Egiten duten gaztak bi berezitasun ditu. Batetik, esne gordinarekin, pasteurizatu gabe dagoen esnearekin lan egiten dute, eta hori dela kausa, gutxienez bi hilabete behar dira gazta egiten denetik gazta jan arte. Bestetik, azala naturala da. Batzuek berbizaren antzeko zerbait ematen diote. Etxandik eta Irigoienek ez, haien ura eta eskuila erabiltzen dute gaztaren azala garbitzeko, etiketa jartzen diote, eta kitto. X



Etxandik eta Irigoienek zortzi urte daramatzate ardi gazta egiten.

JOXE LACALLE



Igandean 250.000 pezeta ordaindu zituzten Baztan gazta erdiaren truke.

ARTXIBOKOIA

◆ Paskual Aldabe ◆ Musikagilea

«Akelarrea euskal festa da»

Paskual Aldabe musikagile lesakarrak 'Akelarre II' baleta estreinatu zuen astearte arratsean, Donostiako Musika Hamabostaldian barnean. Baletak bi zati ditu, eta bakoitza bere aldetik interpreta daitezkeen lau obrek osatzen dute. Autoreak esan digunez, laurogei minututan igarotzen den euskal festa da.

Irene Arrizurieta / Iruñea

Paskual Aldabe Donostian duen etxean harrapatu dugu. Eguntan zoraturta ibili da, Victoria Eugenia antzokian izandako estreinaldia baino lehenagoko entseguak direla eta. Hala ere, gurekin mintzatzeko beta hartu zuen hitz-jario handiko artista honek.

■ **Donostiako 57. Musika Hamabostaldian estreinatu zen iragan asteartean zure azken lana, Akelarre II, nola definituko zenuke obra?**

Euskal musikarekin egindako baleta da. Akelarre II-k hamalau saio ditu bi zatitan banatuak. Lehendabiziko zatia hiru obrek osatzen dute: *Altzateko Jauna*, *Agerraldi Bakikoa* eta *Sorginen agerpena*, eta bigarren zatian *Urtubiko lamia* izena du. Dantza eta dantza, eta musika da obra osoa, euskal festa da. Nik ez dut sinesten akelarrik izan zenik. Akelarrea euskal festa zen bakarrik. Dakizunez, agintariek ez zuten uzten noiznahi festa egiten. Horregatik egiten zuten festa gauean. Festa handia besterik ez zen hor. Laurogei minutuko musikala da, baritono bakarlarri, koru mistoa eta orkestrarentzat egina. Oso lan ona egin dute parte hartu duten Bilboko Orkestra Sinfonikoak, Errenteriako Andra Mari koruak eta Iñaki Fresan bakarlarri iruindarrak.

■ **Nola sortu zen Akelarre II?**

Gipuzkoako Diputazioari proposatutako ideia izan zen. Obra hau baino lehen *Akelarre I* egin nuen, eta 1987an estreinatu zen. Obra aita Donostia eta Jesus Guridi n^o sikagileen mendeurrena

ospatzeko zen. Urte batzuk pasatu zirenean pentsatu nuen jartzan ahal zitzaizkiola koruak eta *Akelarre II* egiten hasi nintzen, hau beste obra da. *Agerraldi Bakikoa* eszena erantsi diot eta bost koru berri. Testuak Pio Barojaren *Altzateko Jauna* liburuan diren euskal bertsoetatik atera ditugu, eta Juan Mari Lekuona euskaltzainak moldatu ditu. Lana luzea izan da.

■ **Beraz, zure azken lana euskal musikan dagoen tradizio aberatsaren isla garbia dela esan daiteke?**

Alegia, euskal tradizioa anitz maite dut. *Akelarre II* balet modernoa da, baina euskal kantu eta dantzaren tradizioari lotua. Guztira hemeretzi kanta agertzen dira, eta horietatik hamasei Nafarroakoak dira, beste bi Zuberoakoak eta bat Gipuzkoakoak. Obran euskal kanta eta dantzako soinu anitz biltzen dira, besteak beste: Zuberoako *Maitia nun zira* edo Azkuek Beran bildutako *Tuntun buruputtun*.

■ **Zure obra berez baleta da, dantzatzeko egina dago, baina kantatu eta musika interpretatu egiten da soilik. Zergatik ez da baleta egin?**

Hori agintariak dute eskutan, asko kostatzen da eta Hamabostaldian gustatzen bazate eginen dute noizbait.

■ **Iruñera ekartzeko asmorik baduzu Akelarren II?**

Bai, hori nahi nuke. Nik Nafarroako Gobernuako Principe de Vianako zuzendariari eskaini diot, idatzi eta guzti, baina oraindik ez du erantzunik eman.

■ **Euskal Herrian betidanik izan**



Paskual Olabe Donostian duen etxean harrapatu genuen lasai asko.

ANDER GILLENEA

da tradizio koral handia eta aberatsa, egun ere mantentzen dela diote. Nola dago harrobia?

Nahiago dut orain bizi direnez ez mintzatu, bat ahanzi egiten badut gaizki geldituko bainaz. Lehenago izan direnak, Usandizaga, Guridi eta horiek oso musikagile handiak izan dira. Orain denetik bada. Bizia denetik egina da, nik nahiago dut tradizioarekin bizi. Nahiz tradizioa hartu oraingo musika egiten dut, batzuentzat pasatuegia eta besteentzat modernoegia izan daite-

keen arren. Batzuek maite dute dena modernoa, eta beste batzuek pentsatzen dute dena zaharra dela. Nik maite badut euskal kanta errespetatu egin behar dudala, baina gero nire azentu moderno eta pertsonala eman nahi diot. Ni urte anitz bizi izan naiz Parisen musika ikasteko eta ezin da musika idatzi orain 50 edo 100 urte bezala, errazagoa izanen zen batzuentzat, baina ez zen egia izanen.

■ **Zeuden 1.200 sarrerak saldu dira, beraz, oso harrera ona**

izan du zure obrak. Pozik egoteko modukoa, ezta?

Oso pozik nago, baina sarrerak ez dira saldu nire musika delakotz; Hamabostaldian dena saltzen da aurretik.

■ **Zer proiektu dituzu esku artean?**

Nik proiekturik ez banu erdi hila egonen nintzateke, beti ametsak egin behar dira. Proiektu handiak baditut, euskal musika egiteko proiektuak, baina benetako lana enkargua ematen dituzenean egiten da.

s o s l a i a

Paskual Rekalde Lesakan jaioa da eta egun urte erdia Donostian eta beste erdia Iruñean ematen du. Musika ikasketak Bilboko, Bartzelonako eta Donostiako kontserbatorioetan egin zituen.

1954. urtean Parisera joan zen eta 1973ra arte han egon zen konposizioa, orkestrazioa eta piano ikasketak hobetzen. Zerbait ikastetxetan musika ere irakatsi zuen.

1973. urtean Euskal Herrira bueltatu zen eta Iruñera etorri zen bizitzera. Garaian, Pablo Sarasate Musika Kontserbatorioko zuzendari izendatu zuten eta irakasle ere izan zen 1984. urtera bitartean. Urteotan sortu zuen ere Pablo Sarasate Koru eta Ganbara Orkestra eta hainbat emanaldi eskaini ditu.

Euskal Herriari beti lotua, euskal musika eta kantuen tradizioa inor baino gehiago maite ditu, horren lekuko dira 'Zer egin ditzut, nire maitea?' eta soka orkestrarentzat egindako haur suitea 'Nerabe sorta'.

P A N E
LUCRÁNDO

ZALDI EROA

